



AKTA OHIKO BILERA 2017/10/30: ELKARRIZKETA ZIBILERAKO MAHAIA

Partehartzaileak:

PRESIDENTEA

- PABLO GONZALEZ GUTIÉRREZ jn., FEVASen ordezkari moduan, Ezintasun intelektuala dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioaren ordezkaria.

IDAZKARIA

- MARIA YOLANDA MENCHACA BARRUETABEÑA and., Gizarte Zerbitzuetako teknikaria (Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza)

KARGUAGATIKO KIDEAK (boto-eskubiderik ez dutenak)

- BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ and., Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.
- LIDE AMILIBIA BERGARETXE and., Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea.

KIDEAK (boto-eskubidea dutenak)

- EMILIO SOLA BALLOJERA jn. Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.
- MARIA YOLANDA MENCHACA BARRUETABEÑA and., Gizarte Zerbitzuetako teknikaria (Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza)
- JOSÉ ALBERTO VICENTE OCHOA jn., ASTIALDI SAREAn ordezkari moduan, aisialdi arloan gizartean esku hartzeko eta Euskal Herriko haur, nerabe eta gazteak hezteko erakundeen sarea.
- OLATZ ECENARRO SANDOVAL and., CONGDE Euskadiren ordezkari moduan, Euskadiren garapenerako GGKEen Koordinakundea.
- ALFONSO LÓPEZ MARTÍNEZ jn., EAPN Euskadiren ordezkari moduan, pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin.
- PABLO MORATALLA SANTAMARÍA jn., EHLABEren ordezkari moduan, Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkarte
- MIKEL MALCORRA OCHOTORENA jn., ELKARTEANen ordezkari, Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea.
- M^a JOSÉ CANO MESÍAS and., FEDEAFESen ordezkari moduan, Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkarteen Federakuntza
- TXEMA ODRIUZOLA AZURMENDI jn., FEDERPENen ordezkari moduan, Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioaren ordezkaria
- ESTEBAN RIVAS CALZADA jn., GIZATEAren ordezkari moduan, Gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko enpresen elkarte
- TERESA MAURA BARANDIARÁN and, HARRESIAK APURTUZEn ordezkari moduan, Euskadiko etorkinei laguntza emateko GKE koordinatzailea.
- BORJA DOVAL FERNANDEZ-CORMENZANA jn., HIREKINen ordezkari moduan, Euskadiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko

Entitateen Federazioa.

- MIKEL MIRENA AGIRREZABAL ONDARRA jn., LARES Euskadiren ordezkari moduan, adindunen egoitza eta arreta-zerbitzuen euskal elkarteak – sektore solidarioa.
- CARLOS ASKUNZE ELIZAGA jn., REAS EUSKADIren ordezkari moduan, Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea.
- ELSA FUENTE DO-ROSARIO and., Euskadiko UNICEF batzordearen ordezkari moduan.

GONBIDATUAK:

- MARCOS MURO NAJERA jn., Enplegu eta Gazteriako sailburuordea.
- AMAIA ARTEAGA DAÑOBEITIA and., Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria.
- BORJA BELANDIA FRADEJAS jn., Lanbideko zuzendaria
- MIKEL BARTUREN NUÑO jn., *SAREEN SARE*Aren koordinatzailea.
- RAFAEL LÓPEZ-AROSTEGI jn., EDE.fundazioa
- PEDRO BEITIA LOLO jn. EDE fundazioa.
- JOSEBA ZALAKAIN HERNÁNDEZ jn., Egia Careaga Fundazioaren Dokumentazio eta Ikerketa Zentroko zuzendaria
- JOSEBA EGIA RIBERO jn., “S&F CONSULTORES”-en aholkularia.

EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTENAK

- NATALIA DIEZ-CABALLERO ALONSO and., HIRUKIDEren ordezkari moduan, Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarteak
- JAVIER DOMÍNGUEZ ENTENZA jn., ONCEren ordezkari moduan, Espainiako itsuen erakunde nazionala.

Lekua:

Bilbo, Bizkaia Plaza eraikina Batzar gela: 3. aretoa

Eguna:

30/10/2017 (astelehena)

Ordua:

16:00 – 19:10.

Mota:

Ohikoa

**Bilerako
aztergaiak**

1. Aurreko bileraren akta onestea.
2. Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko 2018-2021 estrategia.
3. 2017-2021 Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren aurrerapena.
4. Enplegu Plan Estrategikoa 2017-2020
5. Familia eta Haurrentzako Estrategia.
6. Diru-sarrerak bermatzeko errentari eta egoitza-esklusio larriko strategiari buruzko batzorde mistoen lanen jarraipena.
7. 2018ko aurrekontuak (LANBIDE barne). Sareen finantzaketa.
8. Kualifikazio profesionalak egiaztatze prozesuari buruzko informazioa.
9. Eskaerak eta galderak.

Hizkuntza: Gaztelania

Bilkura 2017ko urriaren 30eko 16:05ean hasi da.

Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakariak (EEZM aurrerantzean), PABLO GONZALEZ GUTIERREZ jaunak (FEVAS), ongi-etorria egin die bertan daudenei, eta etorri izana eskertu.. Ondoren, bide eman die gai-zerrendako puntuei, eta emaitza honako hau izan da:

1. AURREKO BILERAKO AKTA IRAKURTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.

Aurreko bilerako aktaren edukia aztertu ondoren, boto-eskubidea duten bertaratuek aho batez onartu dute akta hau:

2017ko uztailaren 17ko ohiko bileraren akta.

2. EHSSA SUSTATZEKO ESTRATEGIA 2018-2021

RAFAEL LÓPEZ-ARÓSTEGI jaunak (*FUNDACION EDE*) hartu du hitza, eta “EHSSa Sustatzeko Estrategia 2018-2021” dokumentua aurkeztu ([I. eranskina](#)).

Azalpenaren ondoren, lehendakariak bertaratuen txanda dela esan du:

ELSA FUENTE DO-ROSARIO andreak (*UNICEF Euskadiko Batzordea*) esan du estrategia munta handikoa dela ematen duela eta, estrategia gidatzen duen lantalde iraunkorra gorabehera (gobernua ordezkatzeko duten bi pertsonak eta gizarte-entitateak ordezkatzeko dituzten beste bik osatuta), iruditzen zaiela **“Idazkaritza Teknikoa” ezarri behar dela, edo laguntza-organo bat**. Nahi dute *jakin, aurrekontuen bozketari begira, ea kontuan hartzen ari den aukera hori, horrelako prozesuak azkartu ahal izateko.*

Gizarte Politiketako sailburuordeak, LIDE AMILIBIA BERGARETXE andreak, esan du gaur aurkeztzen den estrategia *behin gehiago egokitu ondoren* **espezifikoki onartuko duela Mahaiaren osoko bilkurak ezohiko deialdian** azaroan; berak ere dio asmo handiko estrategia dela, eta *gobernuak aurrekontu-partida bat gehitu duela, ekintzei 2018an ekiteko.*

ESTEBAN RIVAS CALZADA jaunak (*GIZATEA*) adierazi du kontsulta-lan berak berez lortzen duela EHSSa sustatzeko helburua, ezaguna izatea gobernu eta erakundeetako sailetan.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak, BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ andreak, ildo beretik, esan du sailentzat gauza handia izan dela egiaztatzea EHSSarekin lankidetzan jardun dezaketela, eta pixkanaka ekarpen gehiago egin dituzte. Estrategia asmo handikoa denez, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailean pragmatikoak eta zurrak izan nahi izan dute, gobernuak urte anitzeko ekimenetan hartutako konpromisoari dagokionez, frustrazioz ez sortzeko EEZMan eta erakundearteko lan-batzordeetan. Uste du oraindik zer egin franko dagoela, baina lortu dela EHSSa ezagutaraztea sailetan.

M^a JOSÉ CANO MESÍAS andreak (*FEDEAFES*) estrategian izandako prozesua laburtu du: lana martxoan hasi zen, zenbait bileraren ondoren jarduketan zerrenda zehaztu zen, eta berak ere uste du errealista izan behar dela, eta jarduketak egokitu behar direla dokumentua amaitu ahal izateko.

EEZMko lehendakariak **ideia gidariak** laburtu ditu:

- Estrategia 2021ean datatuta dago, baina 2018an hastekoa litzateke.

- Testua azaroan baliozkotzeko lan egingo genuke, eta hedapen operatiboa horizonte hurbilenean zertzeko.
- Dagoen aurrekontuaren arabera, dimentsionatu ahal izango da (ikus gai-zerrendako 8. puntua).

TXEMA ODRIOZOLA AZURMENDI jaunak (*FEDERPEN*) galdetu du nola lotzen den estrategia hau Gobernantzaren planteamenduarekin eta Lehendakariarekin, eta sailburuordeak argitu du Gobernantza Nagusiaren estrategia beste bat dela; lankidetzaz EHSSarekin partekatzen da, esparru horretan nola egituratu erabakitzean.

Puntu hori amaituta, lehendakariak gai-zerrendako 3. puntuari ekin dio.

3. 2017-2021EKO GIZARTERATZEKO IV. EUSKAL PLANAREN AURRERAPENA.

Enplegu eta Gazteriako sailburuordeak, MARCOS MURO NAJERA jaunak hartu du hitza: "Gizarteratze Aktiboaren Euskal Plana 2017-2021" dokumentua bidali dute sareetara; gaur aurkeztu dute, eta bertan sakondu nahi dute.

Lehenago, planaren hiru faseak eta egin beharreko urratsak jakinarazi ziren, eta orain World Cafe-n ateratako ondorioak dituzte. Dinamika horretan sailen jarduketak mintzagai izan dituzten lantaldeek eta sareek parte hartu dute. Enplegua eta Gizarte Politikak eta Etxebizitza. **Helburua**, egun, *gauza daitezkeen jarduketak ituntzea* da, eta, horretarako, helburu horietan hitz eginez sakontzea proposatzen da. **Hamar eguneko epea (azaroaren 9a arte) ezarri du sareen ekarpenak jasotzeko**; 15 egunean, plana egiteko ardura duen ERAKUNDEARTEKO BATZORDERA eramango dute dokumentua, sailak berak Gobernu Kontseiluari helaraz diezaion. EEZMaren eta beste foro batzuetako parte-hartzaileen proposamenak aurkeztuko dituzte, beste sailek jarduketa horiek gauzatu ahal izateko hartutako konpromisoarekin.

JOSEBA ZALAKAIN HERNÁNDEZ jaunak, SIISeko zuzendariak, Gizarteratzeko IV. Euskal Planak (II. [eranskina](#)) daukan oinarritzko printzipioak, ardatzak eta jarduketak iruzkindu ondoren, esan du 125 jarduketa biltzen dituen lehen zirriborroa dela.

Puntu honetan, JOSÉ ALBERTO VICENTE OCHOA jaunak (*ASTIALDI SAREA*) honako hau dio:

- 1.- Iruditzen zaio falta dela *kanpaina bat biztanleei sinestarazteko Euskadiko herritarrek solidarioak garela* (beharbada propaganda-kanpaina bat eginez autobusetan eta abar).
- 2.- Enpleguari dagokionez, uste du A planarekin batera **B plana** ere izan beharko genukeela, *enplegua izatea zail/ezinezko duten pertsonentzat*. Uste du oso epe luzean proposatu beharreko elementu batzuk daudela hezkuntza formalean eta ez-formalean, *herritarrek hez ditzagun jakin dezaten lan egiten ez duenak pertsona izaten jarraitzen duela* (izan dadila molde horretako hezkuntza-osagai bat).
- 3.- Behartsuekiko lanean, esaten du sistemaren bat prestatu behar dela **errolatuta ez dauden herritarren eskubidea bermatzeko** (badago gizarte-zerbitzuak lotuta daukan errolda, baina ez dago guztien eskura): erroldatuta ez zauden bitartean, ezin zara joan Lanbidera, ezin duzu ikastarorik egin...; beraz, behar hori aztertzeko eskatu du.

Sailburuordeak erantzun du: alderdi horiek kontuan hartu dira Planean (nahiz eta aurkezpenean ez agertu), bai eta etxerik gabeko pertsonen estrategian ere. Ikusteko dago nola antolatzen diren jarduketa horien barruan. Kanpainari dagokionez, uste du elkartasuna gehitu behar dela, eta serio jokatu behar dela ematen ditugun laguntzekin. Bizkaian autobusetan egindako publizitate-kanpainan, elkartasun hori jakinarazi nahi zaie kolektibo behartsuei, eta egin liteke legea aldatu ondoren. Erroldaren gaian, irtenbideak bilatu beharko dira beste sail batzuekin batera, baina gogoan hartu dute sareek eskatutakoa.

Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak, EMILIO SOLA BALLOJERA jaunak, argitu du ezen, etxerik gabeko pertsonen kasuan, *udalerrietan erroldatzea jasotzen duen gidalerro bat dagoela estrategian*.

PABLO MORATALLA SANTAMARÍA jaunak (*EHLABE*) uste du helburuen zatia zehatz litekeen arren jarduketena dela zatirik garrantzitsuena. *EHLABE*k *prestatuta dauzka ekarpenak*, eta, horregatik, esan du *Enplegu Sailak jarduketan proposamena gutxi-asko itxita daukanean **feedback bat jaso*** nahiko luketela.

BORJA DOVAL FERNANDEZ-CORMENZANA jaunak (*HIREKIN*) galdetu du zer egunetan bidaliko diren dokumentuak Erakundearteko Batzordera, eta EEZMko lehendakariak bat egin eta zenbat kontu argitzeko eskatu du: *ea gaur amaitzen den sareek Gizarteratze Planean parte hartzeko prozesua, edo ea bigarren itzulía izango den sareentzat azken jarduketetan oinarrituta.*

Sailburuordeak zehaztu du bi egun dituztela gogoan: **azaroaren 9a eta 14a**, baina gaur, *EEZMaren ekarpenen bidez, edo hurrengo egunetan, posta elektronikoz jaso daitezkeen ekarpenen bidez, parte har daitekeela: 10 egunean amaituko da Plana Erakundearteko Batzordeari aurkezteko epea*. Mahaiaren gaurko bilera honetan helburuak eta ardatzak aurkezten ari dira, eta igar daiteke jarduketetako batzuk Gizarteratze Planera bideratuko direla. Orain bertan hiru plan zehatz lantzen ari dira sailean (gizarteratzekoa, Enplegu Plan Estrategikoa eta Gazte Plana) –gehiegizkoa zirudien Gazte Plana ere ekartzea agendagatik. Jarduketa-proposamen horiek itxita dauzkatenean, dokumentuak berriz bidaliko zaizkie sailei eta erakundeei, jarduketa horiek gainerako eragileei helarazteko.

ALFONSO LÓPEZ MARTÍNEZ jauna (*EAPN Euskadi*) zenbait konturi buruz mintzatu da:

- 1.- Ez du neurri/jarduketa zehatzik ikusten, lan-merkatuan *prekarietatea eragozteko*.
- 2.- Uste du *alde teorikoa lantzen dela, baina ez enplegu-politikari dagokionez*. Adibidez, gizarte-zerbitzuetan, **emakumeen tratamendua** aipatu du: *etxerik gabeko emakumeen kasuan, hautematen ari da emakume batzuek tratatu txarren emaleekin bizitzen jarraitzen dutela kalean ez gelditzeagatik, eta beldurra ematen diela Gizarte Zerbitzuetara jotzeak. Aurre egin behar zaio errealitate horri.*
- 3.- **Errolda** funtsezkoa da: zenbait zerbitzu eskuratzeko atea da, eta, horregatik, agertu behar du etxerik gabeko pertsonentzako estrategian. Udal bakoitzean kudeatzeko modua desberdina da, eta hori ezin da onartu.
- 4.- Sistemaren jasangarritasun ekonomikoaz aritzean, ez da kontuan hartzen **aurrekontuaren jasangarritasuna**: Osasunean eta Hezkuntzan zer gastatzen den alderatuta, Gizarte Zerbitzuak % 4,5 baino ez dira. Uste du atzean *gizarte-zerbitzuak laguntza bat direlako ikuspegia dagoela, eta “zorroari buruzko dekretuan duguna prestazioak” direlako*; horrek zerikusia du “sozial” kontzeptua ahula izatearekin.
- 5.- Kezka-iturri du udalekin gertatzen dena; Gizarte Zerbitzuetako arduradun askok arazoak dituzte prestazioen zorroa handitzeko. *Zorroan desgaitasuna dutenentzat aitortutako zerbitzuak alde batera utzita, ez dago aitortutako zerbitzurik bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzat*. Uste du neurri-sorta oso bat ezarri behar dela pertsonak batzeko boluntariorazan oinarrituta, eta oso bultzada handia eman behar diola Gizarte Politiketako Sailburuordetzak. Lanbidek enplegu-estrategiak garatuko dituen bezala, Gizarte Zerbitzuek ere pertsonak ardatz dituzten ekimenak garatu behar dituzte, etxerik gabeko pertsonentzako strategiaren ildotik. Azkenik, esan du *errealitateak desberdinak direla lurraldeen arabera*, eta aldundi bakoitzak bere irizpidea duela.

M^a JOSÉ CANO andreak (*FEDEAFES*) bat dator Alfonso Lópezek emakumeaz egin duen gogoetarekin, eta deigarria iruditzen zaio Emakundek ez parte hartzea, desgaitasuna eta buru-gaixotasuna duten emakumeei buruzko dokumentu batean lan egiten ari delako. Uste du dokumentu horrek nahiko ekarpen handia egiten duela genero-indarkeria prebenitzeko, batez ere osasun-esparruan, desgaitasuna duten emakumeengan zentratzeaz gain. Gehitu du Emakundek bizitegi-bazterketa jasaten duten emakumeei buruzko azterlan bat aurkeztu duela oraindik orain.

Eskatu du Saila gehiago sartzeko Gizarte Zerbitzuen eta Enpleguaren esparruko kontuetan, malgutasun handiagoa izateko gizarte-baliabideetan: uste du ordezkatzeko duen kolektiboa oso mugatuta dagoela. Adibidez, enplegua eskuratzean, batzuetan pertsona bat ez da joaten okupazio-lantegi batera, eta horrek ez dio gizarteratzen laguntzen. Pertsonen eta familien **laguntzeko parte-hartze proaktiboagoa** eskatzen da.

EMILIO SOLAK argitu du ezen, Alfonsok aipatutako *gizarte-bazterketako lanari dagokionez, lantalde bat* antolatuko dela *diputazioekin eta udalekin, diagnostiko-ereduaz eta gizarte-bazterketako tresnaz eztabaidatzeko* (biak 2013ko dekretuetan araututa daude).

M^a JOSE CANOK esandakoari dagokionez, bere egiten du Emakunderen iritzia oso garrantzitsua delako ustea, baina egia da, halaber, **etxerik gabeko pertsonen estrategian**, kaleko genero-ikuspegiari buruzko txostenaz geroztik, ardatz oso bat dagoela, **generoaren** zerikusia duena, *horri dagokionez bost gidalerro kontuan hartuta*. Bestalde, esan du genero-indarkeriaren arloko eskumenak, 2009-2012ko legegintzaldian Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzan bilduta egon ondoren, orain banatuta daudela, eta *gure sailean kudeaketa integratua dagoela, berekin dakarrena* *gobernuko gainerako sailen koordinazioa*, Emakundek, berriz, erakundearteko koordinazioa daukalarik.

Sailburuak esku hartu du, eta egindako ekarpenak eskertu. *Gizarte-bazterketako tresnari dagokionez, sailak ere uste du zerbait egin behar zela homogeneizatzeko: tratamendu bera emango zaie Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako pertsonen. Sistemaren jasangarritasunari dagokionez, esan du jasangarritasun horrek eredu babesten duela, ez bakarrik sanitarioa (bitarteko tekniko eta farmakologiko asko eta asko izan arren, mantendu egin behar dira). Era berean, ez da diru-sarrerak bermatzeko errentara soilik mugatzen den zerbait, baizik eta "egungo eta geroko beharrei erantzuteko ereduaren garrantzia nabarmendu nahi dugu; horregatik erabiltzen dugu jasangarritasun terminoa. Badakigu eskubide subjektibo bat dela, eta argi dugu prestazio bat dela, pertsonen eskubide bat, esparrua edozein izanda ere abian jartzen ditugun politika publikoen barruan egongo dena".*

Lehendakariak laburpena eginda amaitu da puntua: *sareen parte-hartze prozesua irekita egongo da hurrengo egunetan, noranzko biko formatua erabiliko da, eta hamar egun barru zehatzago jakingo da jarduketan berri.*

Gehiago luzatu gabe, lehendakariak gai-zerrendako hurrengo puntuari ekin dio.

4. 2017-2020RAKO ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA

MARCOS MURO SAILBURUORDEAK ESAN DU AURKEZPEN BAT EGIN ZELA UZTAILEAN, ETA, ORAIN, DENBORA FALTAGATIK, PLAN ESTRATEGIKOA GARATUKO DEN BEDERATZI ESPARRUETARA MUGATUKO DIRELA; ZEHAZKI, GIZARTERATZE PLANEAN ERAGIN ZUZENA DUTEN HIRUZPALAU ESPARRUETARA.

JOSEBA EGIA RIVERO jaunak (S&F CONSULTORES) 2017-2020ko Enplegu Plan Estrategikoa aurkeztu du ([ikus III. eranskina](#)).

Sailburuordeak argitu du **plana irekita dagoela ekarpenak egiteko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren bidez** (zeina Gobernuak, eragile sindikalek eta patronalak osatzen baitute), eta foro hori handitu nahi dutela (izan ere, bertan daudenetako askok Enpleguaren Euskal Estrategian parte hartu dute).

CARLOS ASKUNZE ELIZAGA jaunak (*REAS EUSKADI*) argitu nahi izan du ea oraindik ekarpen gehiago egin daitekeen, proiektu itxia dela iruditzen baitzaio. Horri dagokionez, sailburuordeak zehaztu du **aginduzko txostenak daudela egun**, eta, litezkeen ekarpen berriei, esan du, neurri zehatz bat balitz, bidezkoa den aztertu beharko litzatekeela, eta, halakoa balitz, ezohiko epe bat ezarri beharko litzatekeela aztertzeko, Gobernu Kontseilura eraman baino lehen. Gehitu

du plan estrategiko bat dela, sail-esparrukoa, **onartuta egon behar duena abenduaren 31rako**, eta legegintzaldian norantz goazen adieraziko duena. Erantsi du ez dela *plan itxia*: sailak planak bideratzeko eta lankidetzarako baliagarriak diren tresnak jartzeko ildoari jarraitzen dio, eta, gainera, emaitzak urtero ebaluatuko dira.

CARLOS ASKUNZE jaunak (*REAS EUSKADI*) esan du **mugatuak direla gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen aurkezten diren jarduketak**: gizarteratzeari ez zaio erreparatzen ikuspegi transbertsalago batetik; soil-soilik laneratzeko pizgarrien esparruan. Badirudi *koherentzia txikia duela enpleguaren ikuspegitik proposatzen denarekin*: zehazki, gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonak gaitu eta laneratzeari buruzko aurkezpenaren 5.3 puntuan, zehaztutako neurriak desgaitasuna duten pertsonentzat baino ez dira. *Aipamen bakarra dago bazterketa-egoeran dauden pertsonak laneratzeari buruz*, ez dago lagun egiteko zerbitzuei buruzko aipamenik, ez eta enplegurako prestakuntza-ekintza espezifikoari buruzkorik ere (garatzen ari diren jarduketetako asko desagertzen dira).

Sailburuordeak erantzun du aurkezpen honetan adierazi ez izanak ez duela esan nahi ez dagoela jasota, eta gero, **plan operatiboetan, agertuko dela zer kolektibo eta zer programa abiaraziko diren**.

ESTEBAN RIVAS CALZADA jaunak (*GIZATEA*) adierazi du *proposamen zehatz bat egin zutela kolektiboak zabaltzeko*, ez bakarrik desgaitasuna duten pertsonentzat, bai eta bazterketa-arriskuan dauden guztientzat ere.

PABLO MORATALLA SANTAMARÍA jaunak (*EHLABE*) hartu du hitza: ados dago Carlos Askunzerekin, bai eta Gizarteratze Planaren dokumentuarekin ere. Esan du nahiko zuketela dokumentu hori bigarren itzulian jasotzea, izan ere, honela **ekarpen berriak zuzenean egin behar izan dizkiote Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari**. *EHLABEren ustez, bazterketaren esparruan baitihardu, ez aipatze hori garrantzitsua da: literaturan, behintzat, garrantzitsua da kolektibo guztiei buruzko aipamena agertzea*. Gainera, EHLABEk egindako ekarpen guztietan, **bazterketa-arriskuan dauden kolektibo guztiez hitz egiten da**, ez bakarrik laneratze-ardatzean, bai eta enplegu publikoan, enplegurako prestakuntzan, gazte-enpleguan... ere. Uste du gutxienez literaturan jaso behar dela, geroago ekintzak proposatzeko.

PABLO GONZALEZ lehendakaria bat etorri da PABLO MORATALLAK esandakoarekin: paradoxikoa da EEZMaren bidez planari buruzko informazioa zeukaten erakunde batzuek, jarduketak aurkeztu nahi izanda ere, udaren ondoren ikustea prozesuaren amaieran geundela, eta Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen bidez parte hartu behar izan dute.

MARCOS MURO sailburuordeak azaldu du Plana EEZMan aztertu ondoren Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordera eramateko ardura zutela, eta sailak lankidetzara horretarako izandako jarrera irekia eta prestasuna azpimarratu ditu.

Sailburuak, berriz, gogorarazi du bazterketa-arriskuan dauden kolektiboak literaturan agertzen direla, baina *gogoan hartzen dutela esandakoa, bestela idazteko eta aipamena esplizituagoa izateko*.

Puntu hori amaituta, lehendakariak gai-zerrendako 5. puntuari ekin dio.

5. FAMILIA- ETA HAURTZARO-ESTRATEGIA.

Lehendakariak proposatu du gaia atzeratzea EEZMaren ezohiko bilkurarako. Hala ere, ELSA FUENTE DO-ROSARIOk (*UNICEF*) aztertze eskatu du, gainera bada ere.

BEATRIZ ARTOLAZABAL sailburuak xehetasun batzuk eman ditu estrategiaz (*IV. eranskina*): legealdiko helburuetako bat da, eta Familiaren Euskal Kontseiluak onartu du. Esan du haurren aldeko itun bat lortzen saiatuko direla, barruan administrazioak, patronala, sindikatuak, alderdi politikoak, elkarteak eta abar hartuko dituen. Herri-itun bat da, eta nabarmendu du

beharrezkoa dela eragile guztien arteko lankidetzara, denon erantzukidetasuna lortzeko. Frantzia aipatu du adibide moduan, jaiotza-tasa alderantzikatzea lortu duelako 1998tik gaur egun arte.

Erantsi du **Elkarrizketa Zibilerako Mahaian lantalde bat sortu dela** helburu hori lortzeko, sindikatuekin eta Lan-harremanetarako Kontseiluarekin. Onartzen du gaiak askoz tratamendu zorrotzagoa behar duela, eta zabalkiago aztertuko da EEZMaren hurrengo bileran.

ELSA FUENTEK (*UNICEF*) esku hartu du: epez kanpo bidali dituzte *estrategiari buruzko gogoeta batzuk*, komunikabideetan aipatzen ari delako, baina iruditzen zaie garrantzitsua dela **herri-ituna jaiotza-tasan ez ardaztea**, funtsezkoa delako beste gai batzuk aztertzea estrategia honetan.

Sailburuak erantzun du balioak eta kultura aldatzearekin zerikusia duela. Hala ere, ondo iruditzen zaio komunikabideak familiaren etorkizunaz, jaiotza-tasaz eta hurrez aritzea. Hain garrantzitsua ez zela zirudiena lan-mahaiaren gainean izateko modu bat da. Baina uste du garrantzitsua dela, denon artean sozializatu behar dugula, eta iruzkina jaso du.

ALFONSO LOPEZ jaunak (*EAPN EUSKADI*) adierazi du nahiko lukeela gaia lantzea hurrengo bileran.

Puntu hori amaituta, lehendakariak gai-zerrendako 6. puntuari ekin dio.

6. DSBE PRESTAZIORAKO ETA BIZILEKU-BAZTERKETA LARRIAREN AURKAKO ESTRATEGIARAKO BATZORDE MISTOEN LANEN JARRAIPENA

Enpleguko eta Gazteriako sailburuordeak adierazi du lehen bilera izan dutela DSBEaren Batzorde Mistoaren funtzionamenduz. Oinarrien dokumentua Legebiltzarrari bidali zitzaien, bilera indibidualetan lan egin zen sareekin, eta, egun, lantalde bat dute sailean; lantaldea Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzak, Lanbidek eta zerbitzu juridikoek osatzen dute, eta legearen aldaketa lantzea eta dekretua bera egitea ditu helburu. Pixkaka egiten ari da aurrera: 15 neurrien atalean, aldatu beharrekoak diren egungo araudiko artikulak daude, eta, bestalde, erregelamenduzko garapena egin behar da. Oraingoa kontzeptuak definitzeko fasea da; *artikulu horien edukia itunduta dagoenean, sareekin kontrastatzeko unea izango da*.

Gogorarazi du **batzordearen helburua** ez zela planteatu beharreko kontuak negoziatzea, baina **egindako aurrerapenen berri ematea**: negoziazioa alderdi politikoen bitartez bideratuko da proposamenak Legebiltzarrera eramaten direnean, baina erkatze hori baliagarria da aurrez jakiteko ea jasota dauden sareen jarrerak.

ALFONSO LÓPEZ jaunak (*EAPN*) datez galdetuta, erantzun du azaroan espero dutela emaitza sendoagoa izatea.

Horren ondoren, LIDE AMILIBIA sailburuordeak argitu du Bizileku Bazterketa Larrirako Estrategiaren batzorde mistoa oraindik ez dela bildu. Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak batzorde politiko-tekniko batean lan egin du, eta bertan honako hauek izan dira parte-hartzaile: Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza, Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza, Lanbide, Osasuneko eta Etxebizitzako sailak, hiru aldundiak, EUDEL, hiru hiriburuak, eta udalak, hala nola Irun, Santurtzi, Portugalete...

Banatu den *azken zirriborroa aurkeztu zen urriaren 10ean*, baina oraindik ez da jaso sareen feedbackik. Estrategia desberdina denez, borondatez atxikitzea, esan du Gobernuaren asmoa dela **atxikimendu hori azaroan zehar sinatzea**. Batzorde politiko-tekniko horren azken bileran, sareen eta administrazio publikoaren arteko batzorde misto bat biltzea proposatu zen, honako kide hauekin: batzorde politiko-teknikoan parte hartzen dutenak eta EEZMko hiru ordezkari. ALFONSO LÓPEZ (*EAPN EUSKADI*), MARI JOSE CANO (*FEDEAFES*) ETA JOSE ALBERTO VICENTE (*ASTIALDI*). Batzorde hori strategiari atxikitzeko protokoloa jendaurreko egin ondoren bilduko da.

Besterik gabe, lehendakariak 7. puntuari ekin dio.

7. 2018KO AURREKONTUA (LANBIDE BARNE). SAREEN FINANTZAKETA.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak jendaurreko egindako datuak eman ditu:

- Lehen aldiz gainditu da mila milioi euroko kopurua, eta aurrekoa baino % 0,7 handiagoa da.
- Zortzi programa nagusien barruan, honako hauek bideratzen dira Enpleguko eta Gizarte Politiketako Egitura eta Babesera: 20,8 M €; Gizarteratzea: 516,6 M €; Immigrazioa: 4,0 M €; Gizarte Zerbitzuak: 33,0 M €; Familia eta Komunitate Politika: 66,1 M €; Enplegua: 241,5 M €; Gazteria: 7,7 M €; eta Prestakuntza: 116,0 M €
- 2018rako Lanbideren aurrekontua 835.753.709 eurokoa da. Orain amaitzen ari den ekitaldian 811.422.131 eurokoa izan da; beraz, % 3ko igoera gertatuko da.

Sail moduan, *helburu garrantzitsuak ditugu, batez ere Gizarte Politikan*, eta xedean artean, azpimarragarriena Familia-arloari legokioke, ez bakarrik alde ekonomikotik, bai eta eragiten zaiolako ***bigarren seme-alabagatiko laguntzak arautzen dituen dekretuari, laguntzak beste urtebete luzatuz: 2 urtetik 3 urtera.***

LIDE AMILIBIAk hartu du hitza: *EHSSari dagokionez, sareentzako diru-laguntza izendunak mantentzen dira, EHSSari laguntzak emateko agindua, eta partidak ditugu Gizarte Zerbitzuetako Plan Estrategikorako, etxerik gabeko pertsonen aldeko estrategiarako, EHSSa sustatzeko estrategiarako, boluntarioraren estrategiarako, Gobernantza Nagusirako, haurrengan eta familian inbertitzeko, immigraziorako...* Abian jarri beharreko estrategia asko daude, eta, ahal den neurrian, estrategia horietarako aurrekontu-partidak jaso dira.

Gizarte Zerbitzuetako zuzendari EMILIO SOLAK azpimarratu du hurrengo urtean eta lehenbailehen ***hiru diru-laguntza ildoak aldi berean*** ateratzeko konpromisoa. Era berean, gogorarazi du 2017an, azken lau urtean izan gabe egon ondoren, Ezagutzaren Kudeaketa diru-laguntza ildo berreskuratu dela.

OLATZ ECENARRO SANDOVAL andreak (CONGDE) galdetuta, sailburuordeak berretsi du orain arte zeuden laguntza guztiei eusten zaiela.

Lanbideko zuzendari nagusi BORJA BELANDIA FRADEJASEk interpelatuta, hau azaldu du:

- *Onartzen da oro har 20 milioi euroko hazkundera, eta modu berean mantentzen dira DSBE/EPOrako aurrekontuak.*
- 2017ko ekainean, aldaketa bat gertatu da Ogasun Sailak kontabilizatzeko moduan, baina ez dio eragin egungo ekitaldiari; 2018rako, ordea, 18 milioiko partida baten esleipena aldatu da: Ogasun Publikotik sailari zuzenean esleitu beharrean, transferentzia bitan zatitzen da (sailak aurreko ekitaldietan sortutako ekarpen moduan, bi zatietako bat). Horregatik ez zaio bakarrik erreparatu behar sailaren aurrekontuari, eta sailarena eta Lanbiderena batu behar dira.

BEATRIZ ARTOLAZABAL sailburuak esan du azaroaren 7an agertuko direla Legebiltzarrean, aurrekontu-proiektua aurkezteko, eta talde politikoren baten babesa izan beharko duela onartua izateko. Mugen barruan, uste du aurrekontu ona dela, ***gobernuak***, heldu beharreko susperraldia sendotzeko, ***prestazioetan eta enplegu-politika aktiboetan ezarritako helburuak beteko direlako.***

ESTEBAN RIVAS CALZADAK (GIZATEA), kontuan hartuta *gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek* 2016-2017an izandako *bilakaera* eta 2018rako aurreikuspena, galdetu du ea kontuan hartu den partida handitzeko aukera, aurrekontua aldatu behar ez izateko.

Sailburuak eta Lanbideko nagusiak ezetz erantzun dute: *beharrei aurre egiteko, konpromiso-kredituetara jo da*, eta hurrengo urtean egoeraren arabera partida handitzeko aukera ebaluatuko da.

Lehendakariak 8. puntuari ekin dio.

8. LANBIDE-KUALIFIKAZIOAK EGIAZTATZEKO PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA.

EMILIO SOLAK esan du urriaren 10ean zuzendari nagusien batzorde delegatuaren bilera egin zela, eta sailburuak Lurralde Kontseiluan parte hartu zuela, non orain Estatuko Aldizkari Ofizialera joango den kualifikazioei buruzko akordio hau bozkatu eta onartu baitzen.

- Oso aurrerapauso garrantzitsu bat azpimarratu du: *orain kontuan hartzen da gizarteratzeko goi-mailako teknikari titulua*, baina zentroetako **jarduneko langileentzat baino ez**.
- **Laguntzaile pertsonalei** dagokienez, etxeko laguntzaileei bezala, titulu edo ziurtagiri batzuk eskatzen zaizkie, eta IMSERSOK dio **gehienez ere hiru hileko epean izango dela** figura horren **arautze espezifiko**a (Estatuko laguntzaile pertsonal gehienak Gipuzkoan daude, eta, horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundia alde interesduna da).
- **Ohiz kanpoko gaikuntzari** dagokionez, adinaren baldintza kendu da (lehen 55 urtetik gorakoentzat zen; orain, ordea, adinik gabe). Bete beharreko **baldintzak** hauek dira:

*lan egindako 2.000 ordu eta hiru urteko esperientzia azken 12 urteetan, edo gutxienez konpetentziei lotutako 300 orduko prestakuntza espezifiko*a abenduaren 31 baino lehen. *Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzan espero da hurrengo hilabeteetan ohiz kanpoko gaikuntza lortzeko eskaera mordoa izango dela, adinak mugatzen ez duelako.*

- Baldintza guztiak betetzen ez dituztenentzat, **behin-behineko gaikuntza** bat dago: abenduaren 31 baino lehen lan egin dutenak prestakuntza-bitartekoan esku hartzera konprometitzen dira **erantzukizunpeko adierazpen baten** bidez. EAEn, aurretiko akordioaren zirriborroa aldatzea lortu dugu, **hurrengo deialdian guztiek parte hartuko dutela** esaten zutelako, baina irailean EHAAn argitaratu zen deialdia 600 plaza soilik betetzeko zen. Orain, **erantzukizunpeko adierazpen honekin, hurrengo deialdietan 2022ra arte** parte hartuko dutela izango da konpromisoa. Urriaren 2a eta Lanbide eta LH antolamenduan parte hartzeko izena aurrez emateko epea amaitu zen urriaren 20a artean, 5.700 pertsona baino gehiago inskribatuko direla aurreikusten da (oraindik ez dago behin betiko daturik).

Galdetuta **gizarteratzeko goi-mailako teknikari titulazioaz**, EMILIO SOLAK azaldu du proposamena zela titulazio horretan ikasten ari direnak onartzea, baina beste autonomia-erkidegoak ez ziren bat etorri. Irtenbidea izan da **zentroetan lan egiten ari direnak** soilik onartzeko dituztela. Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak jakinarazi du kezkatuta dagoela titulazio horretako ikasle eta irakasleengatik, ezingo baitute jardun etorkizunean. AGISAS eta BIGITE elkarteak (Euskadin dauden biak; hirutan bildu gara beraiekin) haserre daude, ateratzen diren deialdietan ez direlako aipatzen gizarteratzaileak. Horregatik, gehienak beste prestakuntza osagarri bat egiten ari dira (animatzaile soziokulturala, hezitzailea eta abar). **Kezkagarritzat jotzen dute titulazioaren etorkizuna**, eta, horregatik, IMSERSOrekin eta autonomia-erkidegoekin lan egingo da gaiari buruz.

PABLO GONZALEZ jaunak galdetutakoa dela eta, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak berretsi du urriaren 19an *egin zela* akordio hau onartu zuen *Lurralde Kontseilua*, eta Espainiako Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz egongo dela. Lehendakariak, halaber, galdetu du ea ohiz kanpoko gaikuntzan 300 prestakuntza-orduak *egiazta daitezkeen enpresan bertan egindako prestakuntzarekin*, edo prestakuntzak arautua izan behar duen, eta EMILIO SOLAK erantzun dio printzipioan baietz, baina ez dutela argi uzten nork ebaluatu behar duen prestakuntza hori (Hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak eta abar).

MIKEL MALKORRA OCHOTORENAK (*ELKARTEAN*) egindako kontsultari dagokionez, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak azaldu du erdi-mailako titulazio bat onartu behar izan dutela, zentroetan lan egiten ari diren pertsona askok duten prestakuntza baino apalagoa dena. Prozesuari buruz, esan du gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen ministerioak ez dituela kontuan hartu ez Hezkuntza Ministerioa ez Enplegu Ministerioa 2015. urtera arte (ebazpena argitaratu eta 7 urte geroago). Era berean, MIKEL MALKORRAK galdetu du ea jakina den nortzuk egongo diren mendekotasunaren esparrurako laguntzaile pertsonalaren gaiari buruzko eztabaida-taldean, eta EMILIO SOLAK erantzun du JON IRIBAR GOENAGA (Plangintzako,

Ituneko eta Prestazio Ekonomikoetako Zerbitzuko burua - Gipuzkoako Foru Aldundia) egongo dela talde horretan.

9. GALDE-ESKEAK.

BORJA DOVALEK (*HIREKIN*) galdetu du ea egunik jarrita dagoen EEZMak azaroan egin beharreko ezohiko deialdirako, eta sailburuordeak erantzun du laster zehaztuko dela.

Aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, EEZMko lehendakariak bukatutzat jo du bilkura 19:10ean. Bilbo, 2017ko urriaren 30a.

O. E.

Pablo González Gutiérrez jauna	M ^a Yolanda Menchaca Barruetabeña
Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko	andrea
lehendakaria	Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko idazkaria.

Aktaren eranskinak:

- I. eranskina- EHSSa Sustatzeko Estrategia 2018-2021
- II.eranskina- IV. Gizarteratzeko Euskal Plana, 2017-2021
- III. eranskina- Enplegu Plan Estrategikoa 2017-2020
- IV. eranskina.- Familia- eta Haurtzaro-estrategia.